

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Uxueko ikastetxe publikoari eman diote Garapenerako Hezkuntza Vicente Ferrer saria

Maria Solana Kontseilaria izan da sari banaketan, Uxueko alkatearekin batera

Ostirala, 2017.eko urriak 20

Uxueko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoari eman diote “Vicente Ferrer” Garapenerako Hezkuntza saria, Nazioarteko Kooperazio Agentziaren saria, beste 15 ikastetxerekin batera.

Ikastetxeko irakasle eta zuzendari Esther Leza Ongayk jaso du diploma eta ekitaldian izan dira Hezkuntza kontseilari María Solana eta Ebaluaketa, Kalitatea, Formazioa, Berdintasuna eta Bizikidetzaz zerbitzu-zuzendari Aitor Lakasta, Uxueko alkate Ruben Sanchez.



Aitor Lakasta, Maria Solana, Jordi Folgado (Fundación Vicente Ferrer), Esther Leza (premiada), Ruben Sanchez (alcalde de Ujue), Jon Ijurko Urruzola (profesor de idiomas de Ujué).

Bihar bertan, saritutako ikastetxeetako bina ordezkari Senegalera joango dira Elkartrukatze eta Garapenerako Praktika Onen Formazio seminarioan parte hartzera, euren hezkuntza esperientziak elkartrukatu eta Kooperazio Agentziaren lanaren berri izateko.

Vicente Ferrer Garapenerako Hezkuntza saria AECIDek antolatzen du, eta bere helburua da iritzi kritikoa garatzea eta parte hartzea sustatzea hezkuntza ekimen, proiektu edo programen bidez, ikasleen artean elkartasuna eta pobrezia aurre egiteko konpromisoa eta parte hartzea sustatzeko.

Uxueko ikastetxeak ikasle talde txikia du eta Hezkuntza departamenduak sustatzen duen Eskola Solidarioak proiektuan parte hartzen du, Nafarroako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakudenarekin elkarlanean. Eskola zuzendari Esther Lezak sustatu duen proiektuak ikasteko metodologiak sustatzen ditu proiektuetan oinarrituta. Zehazki, “Mapa bat eskolan” izeneko proiektuaren asmoa sortu zen herriko plazan gorpuzki batzuk agertu zirenean. Hala, hainbat mundu lotzeko baliatu zuen, batetik “Mugarik gabeko Eskubideak” proiektuarekin eta, bestetik, ikasturtean zehar abiarazitako beste hainbat egitasmorekin.